| Pasaia        | Pasaia           | pasaitar       |

Tolosaldea (-a)<sup>21</sup>

| Izen ofiziala | Euskal izena | Herritar izena |
|---------------|--------------|----------------|
| Abaltzisketa  | Abaltzisketa | abaltzisketar  |
| Aduna         | Aduna        | adunar         |
| Albiztur      | Albiztur     | albizturtar    |
| Alegia        | Alegia       | alegiar        |
| Alkiza        | Alkiza       | alkizar        |

<sup>20</sup> Gogoratu behar da bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Oiartzualdea*, *Oiartzualdearekin*, *Oiartzualdean*..., baina *Oiartzualdeko*, *Oiartzualdetik*, *Oiartzualdera*... Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Oiartzualde maitea*, *Oiartzualde osoan*, *gure Oiartzualde hau*...

<sup>21</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Oiartzualdea* izenaren oin-oharra.



| <b>Izen ofiziala</b> | <b>Euskal izena</b> | <b>Herritar izena</b> |
|----------------------|---------------------|-----------------------|
| Altzo                | Altzo               | altzotar              |
| Amezqueta            | Amezqueta           | amezketar             |
| Andoain              | Andoain             | andoaindar            |
| Anoeta               | Anoeta              | anoetar               |
| Asteasu              | Asteasu             | asteasuar             |
| Baliarrain           | Baliarrain          | baliarraindar         |
| Belauntza            | Belauntza           | belauntzar            |
| Berastegi            | Berastegi           | berastegiar           |
| Berrobi              | Berrobi             | berrobitar            |
| Elduain              | Elduain             | elduaindar            |
| Gaztelu              | Gaztelu             | gazteluar             |
| Hernalde             | Hernalde            | hernaldetar           |
| Ibarra               | Ibarra              | ibartar               |
| Ikaztegieta          | Ikaztegieta         | ikaztegiatar          |
| Irura                | Irura               | irurar                |
| Larraul              | Larraul             | larrauldar            |
| Leaburu              | Leaburu             | leaburuar             |
| Lizartza             | Lizartza            | lizartzar             |
| Orendain             | Orendain            | orendaindar           |
| Orexa                | Orexa               | orexar                |
| Tolosa               | Tolosa              | tolosar               |
| Urretxu              | Urretxu             | urretxuar             |
| Villabona            | Villabona-Amasa     | billabonatar, amasar  |
| Zizurkil             | Zizurkil            | zizurkildar           |

### **Goierrri**

| <b>Izen ofiziala</b> | <b>Euskal izena</b> | <b>Herritar izena</b> |
|----------------------|---------------------|-----------------------|
| Altzaga              | Altzaga             | altzagar              |
| Arama                | Arama               | aramar                |
| Ataun                | Ataun               | ataundar              |
| Beasain              | Beasain             | beasaindar            |
| Ezkio-Itsaso         | Ezkio-Itsaso        | ezkiotar, itsasoar    |
| Gabiria              | Gabiria             | gabiriar              |
| Gaintza              | Gaintza             | gaintzar              |
| Idiazabal            | Idiazabal           | idiazabaldar          |

| <b>Izen ofiziala</b> | <b>Euskal izena</b> | <b>Herritar izena</b> |
|----------------------|---------------------|-----------------------|
| Itsasondo            | Itsasondo           | itsasondoar           |
| Lazkao               | Lazkao              | lazkaotar             |
| Legazpi              | Legazpi             | legazpiar             |
| Legorreta            | Legorreta           | legorretar            |
| Mutiloa              | Mutiloa             | mutiloar              |
| Olaberria            | Olaberria (-a)      | olaberritar           |
| Ordizia              | Ordizia             | ordiziar              |
| Ormaiztegi           | Ormaiztegi          | ormaiztegiar          |
| Segura               | Segura              | segurar               |
| Zaldibia             | Zaldibia            | zaldibiar             |
| Zegama               | Zegama              | zegamar               |
| Zerain               | Zerain              | zeraindar             |
| Zumarraga            | Zumarraga           | zumarragar            |

### **Urola Kosta**

| <b>Izen ofiziala</b> | <b>Euskal izena</b>   | <b>Herritar izena</b> |
|----------------------|-----------------------|-----------------------|
| Aia                  | Aia                   | aiar                  |
| Aizarnazabal         | Aizarnazabal          | aizarnazabaldar       |
| Azkoitia             | Azkoitia (-a)         | azkoitiar             |
| Azpeitia             | Azpeitia (-a)         | azpeitiar             |
| Beizama              | Beizama               | beizamar              |
| Bidegoian            | Bidania (-a) - Goiatz | bidaniar, goiaztar    |
| Errezil              | Errezil               | errezildar            |
| Getaria              | Getaria               | getariar              |
| Zarautz              | Zarautz               | zarauztar             |
| Zestoa               | Zestoa                | zestoar               |
| Zumaia               | Zumaia                | zumaiar               |

**Debarroa (-a)<sup>22</sup>****a) Debarrena (-a)<sup>23</sup>**

| <b>Izen ofiziala</b>              | <b>Euskal izena</b> | <b>Herritar izena</b> |
|-----------------------------------|---------------------|-----------------------|
| Deba                              | Deba                | debar                 |
| Eibar                             | Eibar               | eibartar              |
| Elgoibar                          | Elgoibar            | elgoibartar           |
| Mendaro                           | Mendaro             | mendaroar             |
| Mutriku                           | Mutriku             | mutrikuar             |
| Soraluze - Placencia de las Armas | Soraluze            | soraluzetar           |

**b) Debagoiena (-a)<sup>24</sup>**


| <b>Izen ofiziala</b> | <b>Euskal izena</b> | <b>Herritar izena</b> |
|----------------------|---------------------|-----------------------|
| Antzuola             | Antzuola            | antzuolar             |
| Aretxabaleta         | Aretxabaleta        | aretxabaletar         |
| Arrasate / Mondragón | Arrasate            | arrasatear            |
| Bergara              | Bergara             | bergarar              |
| Elgeta               | Elgeta              | elgetar               |
| Eskoriatza           | Eskoriatza          | eskoriatzar           |
| Leintz Gatzaga       | Leintz Gatzaga      | gatzagar              |
| Oñati                | Oñati               | oñatiar               |

<sup>22</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Oiartzualdea* izenaren oin-oharra.

<sup>23</sup> Gogoratu behar da bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Debarrena, Debarrenarekin, Debarrenaz...*, baina *Debarrenean, Debarreneko, Debarrenetik, Debarrenera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Debarren maitea, Debarren osoan, gure Debarren hau...*

<sup>24</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Debarrena* izenaren oin-oharra.

## 2.4. Nafarroa<sup>1</sup>



<sup>1</sup> Herrialde hau Ipar Euskal Herriko *Nafarroa Beherea* izenekotik bereizi behar denean, horrela erabiltzen ahal da:

- Izenburu gisa: *Nafarroa Garaia*.

- Deklinatua: *Nafarroa Garaian*, *Nafarroa Garaiarekin*..., baina *Nafarroa Garaiko*, *Nafarroa Garaitik*, *Nafarroa Garaira*... Era berean, bere azken *-a* galtzen du ondoan determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Nafarroa Garai maitea*, *Nafarroa Garai osoan*, *gure Nafarroa Garai hau*...



### 2.4.1. Sarrera

1979 eta 1990eko izendegiekin erkatuz gero, ageri diren desberdintasunak sei azpialtal hauetan sailkatzen ahal dira:

#### 1) Izen berriak

Azken urteotan zortzi udal berri sortu dira Nafarroan, horietatik sei Iruñerriko zendeetan.

| Izen ofiziala                        | Euskal izena       | Herritar izena | 1979an zegokion udala |
|--------------------------------------|--------------------|----------------|-----------------------|
| Barañáin                             | Barañain           | barañaindar    | Zizur zendea          |
| Beriáin                              | Beriain            | beriaindar     | Galar zendea          |
| Berrioplano                          | Berriobeiti        | berriobeitiar  | Antsoain zendea       |
| Berriozar                            | Berriozar          | berriozartar   | Antsoain zendea       |
| Irurtzun                             | Irurtzun           | irurtzundar    | Arakil                |
| Lekunberri                           | Lekunberri         | lekunberriar   | Larraun               |
| Orkoien                              | Orkoien            | orkoiendar     | Oltza zendea          |
| Zizur Mayor <><br>Zizur Nagusia (-a) | Zizur Nagusia (-a) | zizurtar       | Zizur zendea          |

#### 2) Kendu diren bitasunak

Aurreko izendegietan ageri ziren bitasun gehienak kendu egin dira, ondoko bi sailkapenetan azaltzen diren arrazoiengatik:

##### a) 1979ko izendegian zortzi udal bi izenekin ageri ziren

| Izen ofiziala        | 1979ko izena                | Euskal izena   |
|----------------------|-----------------------------|----------------|
| Aguilar de Codés     | Agilar = Arranotegi*        | Aguilar Kodes  |
| Cabanillas           | Kabanillas = Kapanaga*      | Cabanillas     |
| Cabredo              | Kabredo = Ahuntzegi*        | Cabredo        |
| Cárcar               | Karkar = Karakarre          | Cárcar         |
| Monteagudo           | Monteagudo = Mendikute*     | Monteagudo     |
| Ribaforada           | Ribaforada = Erripazuloaga* | Ribaforada     |
| Torres del Río       | Torres = Dorreaga*          | Torres del Río |
| Villava <> Atarrabia | Atarrabia = Billaba         | Atarrabia      |

Izartxoan daramaten bigarren izendapenak asmatuak edo neologismoak zirenez gero, ez zuten lekurik izan 1990eko izendegian. *Karakarre* ere asmatua da. *Atarrabia*, berriz, kasu berezia da: euskaldunek *Billaba* erabili izan dute, baina XX. mendean *Atarrabia* nagusitu eta izen hau da gaur egun euskaraz erabiltzen dena.

### b) 1990eko izendegian lau herriri jarri zitzairen bigarren aldaera oraingoan kendu egin zaie

| Izen ofiziala          | 1990eko izena                | Euskal izena     |
|------------------------|------------------------------|------------------|
| Jaurrieta              | 1. Eiaurrieta, 2. Ihaurrieta | Jaurrieta        |
| Ochagavía <> Otsagabia | 1. Otsagabia, 2. Otsagi      | Otsagabia (-a)   |
| Olazti / Olazagutía    | 1. Olatzagutia, 2. Olazti    | Olatzagutia (-a) |
| Orbaitzeta             | 1. Orbaitzeta, 2. Orbaizta   | Orbaitzeta       |

Jaurrietaren kasuan *Eaurta* proposatu zen 1979an, euskaldunen ahozko erabilera nagusiari lehentasuna emanetz. 1990ean, berriz, antzinako agirietako *Eiaurrieta* edo *Ihaurrieta* hobetsi ziren. Aldaera hori XI-XIII mendeen geroztik ageri ez denez gero, zaharkituztat jo da eta ordutik erabili ohi den *Jaurrieta* onetsi da. *Olazti*, *Orbaitza* eta *Otsagi* ahozko aldaera laburtuak alde batera utzi dira, beste hainbat herri izenetan egin den bezalaxe, hala nola, *Elgorria* (*Elgorriaga*), *Ittuna* (*Ituren*), *Lekauz* (*Lekaroz*), *Sauta* (*Saraguetza*), *Lixarrango* (*Lizarragabengoa*) etab. Nazioarteko irizpidea idazketan eta goi mailako erabileran forma osoak erabiltzearen alde mintzo den arren, horrek ez du esan nahi forma laburtuen erabilera desegokia dela hizkera arruntean.

### 3) Ikerketa berrien ondorioz zuzendu diren izenak

1990az geroztik egindako ikerketen ondorioz, datu berriak ezagutu dira eta, honelakoetan egin ohi den bezala, aurretik hartutako zenbait erabaki aldatu behar izan dira. Aldaketa horiek honako hiru atal hauetan sailka daitezke:

#### a) Afrikatuen auziaren ondoriozko aldaketak

Aurreko izendegietan, amaierako *-s* eta *-z* txistukariak direla eta, analogia aplikatuz, eskualde batzuetan izan ezik, Nafarroan ohikoak diren *-ts* eta *-tz* amaiera afrikatuei eman zitzairen lehentasuna. Oraingo honetan, berriz, tokian tokiko ahoskera errespetatu da.

| Izen ofiziala | 1990eko izena        | Euskal izena       |
|---------------|----------------------|--------------------|
| Adiós         | Adiotz               | Adios              |
| Oitz          | Oitz                 | Oiz                |
| Orbaitzeta    | Orbaitzeta, Orbaizta | Orbaitzeta         |
| Urrotz        | Urrotz               | Urroz <sup>3</sup> |

<sup>2</sup> “Nagusia” diogu, *Igaurta*, *I(g)orta* eta *Iaurta* aldaerak ere erabiltzen direlako.

<sup>3</sup> Malerrekan dagoen herriaz ari gara hemen, ez Lizoainbarkoaz.

*Orbaitzeta* etimologiaz baliatuz proposatu zen, baina ikerketek argi utzi dute *Orbaitzeta* dela euskal forma erabilia. Malerrekako *Oiz* eta *Urroz* herri izenetan, Baztangoetan egin zen bezala, bertako ahoskera hobestea erabaki da.

### b) Ikerketa berriek herri eta ibar izenetan eragindako zuzenketak

Azken urteotan egin diren ikerketa berriei esker, hobeki ezagutu izan dira herri batzuen euskal izenak. Ondorioz, aldaketa hauek proposatu dira:

| Izen ofiziala                              | 1990eko izena             | Euskal izena             |
|--|---------------------------|--------------------------|
| Améscoa Baja                               | Ameskoabarren             | Ameskoabarrena (-a)      |
| Arróniz                                    | Arronitz                  | Arroitx                  |
| Artajona                                   | Artaxona                  | Artaxoa                  |
| Belascoáin                                 | Belaskoain                | Beraskoain               |
| Guirguillano                               | Girgillano                | Girgillao                |
| Juslapeña                                  | Xulapain (ibarra)         | Txulapain                |
| Larraona                                   | Larraona                  | Larragoa                 |
| Lizoáin-Arriasgoiti <> Lizoain-Arriasgoiti | Lizoain                   | Lizoainibar-Arriasgoiti  |
| Tiebas - Muruarte de Reta                  | Tiebas - Muru Artederreta | Tebas - Muru Artederreta |
| Valdorba                                   | Orba (ibarra)             | Orbaibar                 |

### c) Herritar izenetan egindako aldaketak

Atal honetan ageri diren aldaketak maila desberdinekoak dira. Batzuetan, aurreko koadroetan aditzera ematen diren aldaketen ondorioz, euskal izen zuzena zein den jakitean, herritar izena ere aldatu behar izan da: *Artaxona*-ren ordean *Artaxoa* hobestean, herritar izena ere *artaxoar* erabili beharko da. Beste batzuetan, udal berria delako edota eskualdearen izenarekin bat datorrelako, herritar izena gehitu behar izan da. Azkenik, aurreko izendegietan proposatutako zenbait herritar izen ez ziren erabat zuzenak, edo ahozko laburpenak zirelako, edo XX. mendean zabalduko *-tar* atzizkiaren lekuz kanpoko erabilera aplikatu zelako.

| Izen ofiziala                | Euskal izena                   | 1979ko herritar izena | Herritar izena                     |
|------------------------------|--------------------------------|-----------------------|------------------------------------|
| Abaurregaina / Abaurrea Alta | Abaurregaina (-a)              | abaurtar              | abaurrear, abaurregaindar          |
| Abaurrepea / Abaurrea Baja   | Abaurrepea (-a)                | abaurtar              | abaurrepetar                       |
| Amescoa Baja                 | Ameskoabarrena (-a)            | amezkoar              | ameskoar, ameskoabarrendar         |
| Aribe                        | Aribe                          | aribetar              | aribear                            |
| Echarri                      | Etxarri,<br>Etxarri Etxauribar | etxarriar             | etxarriar,<br>etxarrietxauribartar |
| Egüés                        | Eguesibar                      | eguestar              | eguesibartar                       |



| Izen ofiziala                                   | Euskal izena                | 1979ko herritar izena | Herritar izena                |
|---|-----------------------------|-----------------------|-------------------------------|
| Esparza de Salazar /<br>Espartza Zaraitzu       | Espartza, Espartza Zaraitzu | espartzar             | espartzar, espartzazaraitzuar |
| Etayo   | Etaiu                       | etaiuar               | etaiuar, etaiuko              |
| Etxarri-Aranatz                                 | Etxarri Aranatz             | etxarriar             | etxarriar, etxarriaranaztar   |
| Gallipienzo <> Galipentzu                       | Galipentzu                  | galipentzar           | galipentzutar                 |
| Garaioa   | Garaioa                     | garaioar              | garaiotar                     |
| Goñi  | Goñerri, Goñibar            | goñibartar            | goñerritar, goñibartar        |
| Guirguillano                                    | Girgillao                   | girgillanoar          | girgillaoar                   |
| Huarte <> Uharte                                | Uharte                      | uhartear              | uhartear, uharteguesibartar   |
| Liédena   | Ledeá                       | lediar                | ledeatar                      |
| Luquin  | Lukin                       | lukiaindar            | lukindar                      |
| Noáin (Valle de Elorz) <><br>Noain (Elortzibar) | Noain Elortzibar            | elortzibartar         | noaindar, elortzibartar       |
| Orbara  | Orbara                      | orbartar              | orbaratar                     |
| Oroz-Betelu <><br>Orotz-Betelu                  | Orotz-Betelu                | orozbeteluar          | oroztar                       |
| Romanzado                                       | Erromantzatua (-a)          | urrauldar             | erromantzatuar                |
| Sada  | Zare                        | zarear                | zarear, zareko                |
| San Martín de Unx                               | San Martin Unx              | donamartiriar         | sanmartindar                  |
| Sorlada   | Sorlada                     | surusladar            | sorladatar                    |
| Urraúl Alto                                     | Urraulgoiti                 | urrauldar             | urraulgoitiar                 |
| Urraúl Bajo                                     | Urraulbeiti                 | urrauldar             | urraulbeitiar                 |
| Villamayor de Monjardín                         | Villamayor de Monjardín     | doneztebar            | villamayortar                 |
| Zizur Mayor <><br>Zizur Nagusia                 | Zizur Nagusia (-a)          | zizurtar              | zizurtar, zizurnagusitar      |
| Zúñiga  | Zuñiga                      | eztunigar             | zuñigar                       |

#### 4) Araugintza berriari egokitu behar izan direnak

Goiago aipatu bezala, azken urteetan Euskaltzaindiak beste zenbait arau eta gomendio eman ditu. Horien artean 141. araua dugu, *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoaren erabilera*, hartutako zenbait erabakitan ondorioak izan dituenak. Bertan zehazten da herri izenetan ageri diren zeinu grafikoak nola erabili behar diren eta zein hurrenkera aplikatu behar den izen ofizialari eskualdearena edo bestelakoren bat gehitu behar zaionean. Arau berri horren ondorioz, 1979ko eta 1990eko izendegietan ageri ziren parentesiak kendu egin dira. Herri izena gehi eskualde, haran edo ibarraren erabilera oso hedatua badago eta elkartzeko hori jadanik lexikaldutzat ematen denean, erabilera jasoan biak jarriko dira. Honelakoetan, lehenbizi herriaren izena jarriko da eta gero, tarteko marratxorik gabe, ibar edo eskualdearena, esaterako *Miranda Arga*, *Uharte Arakil*. Zenbait kasutan,

ordea, herri izenaren erabilera arruntak ez du ezinbestez eskatzen eskualde, haran edo ibarraren argigarria eta, hortaz, ez da jarri beharrik, betiere baldin eta nahasketa sortzeko arriskurik ez badago. Baina testuingurua behar bezain argia ez denean, herri hori izenkidea den beste batekin nahas litekeelako, herri izenaren ondotik, dagozkion ibar edo eskualdearena jarriko da argigarri: *Hiriberri Aezkoa, Etxarri Etxauribar...*

| <b>Izen ofiziala</b>             | <b>Aurreko proposamena</b>   | <b>Euskal izena</b> |
|----------------------------------|------------------------------|---------------------|
| Aguilar de Codés                 | Agilar = Arranotegi*         | Aguilar Kodes       |
| Echarri                          | Etxauri-Etxarri              | Etxarri Etxauribar  |
| Etxarri-Aranatz                  | Etxarri-Aranatz              | Etxarri Aranatz     |
| Hiriberri / Villanueva de Aezkoa | Aezkoa-Hiriberri             | Hiriberri Aezkoa    |
| Huarte <> Uharte                 | Egues-Uharte                 | Uharte Eguesibar    |
| Miranda de Arga                  | Arga-Miranda                 | Miranda Arga        |
| Santesteban de la Solana         | Iguzkitza-Doneztebe (ibarra) | Doneztebe Iguzkitza |
| Uharte-Arakil                    | Uharte-Arakil                | Uharte Arakil       |
| Urroz-Villa                      | Lizoain-Urrotz               | Urrotz-Hiria        |

Azkenik, badira izen batzuk, *Cárcar, Castejón, Cintruénigo, Lapoblación, Marañón, Mérida, San Adrián, Torralba del Río* eta *Torres del Río*, erdarazkoak izanik azentu grafikoa daukatenak. Horrelakoetan, jakina den bezala, euskal testuetan erabili behar direnean, Akademiak zeinu grafikorik gabeko aldaera gomendatzen du, hots, *Marañongo udaletxea* edo *Castejongo lurrak*.

### 5) Euskal ordain ezagunik ez duten herri izenak

Nafarroan, Araban bezala, zenbait udal izenek ez dute euskal ordain ziurrik edota ezagunik. Hala ere, 1979ko izendegian ordain horiek ematearen alde jokatu zen. Kasu batzuetan erdal izena hobetsi zen, hala nola, *Tafalla* edo *Sesma*. Beste zenbaitetan –gutxitan egia esan– egungo izenaren aldaera zaharrena euskal izen-tzat hartu zen, *Zentroniko*, adibidez. Beste kasu frankotan, erdal izena euskal idazkerara moldatu zen, *Biana*, *Karkar* edo *Kaskante* esaterako. Azkenik, izen berri gutxi batzuk asmatu ere egin ziren: *Ahuntzegi, Kapanaga, Meanuri, Uxanuri*. 1990ean argitara emandako izendegian, berriz, izen horiek alde batera utziz, *N.t.e.e.c. (No tiene equivalente eusquérico conocido, hau da, Ez du euskal ordain ezagunik)* paratu zen argigarri bezala.

Izendegi berri honetarako, azkeneko urteotan egindako ikerketetan lortu diren datuen oinarriarekin, Akademiak gaia berraztertu eta proposamen berriak eskaini ahal izan ditu. Egin diren aldaketa horiek bi multzotan sailka daitezke.

## a) Euskaraz idazkera propioa dutenak

| Izen ofiziala | 1979ko izendegia | 1990eko izendegia | Euskal izena |
|---------------|------------------|-------------------|--------------|
| Armañanzas    | Armañantzas      | (N.t.e.e.c.)      | Armañanzas   |
| Espronceda    | Esprontzeda      | (N.t.e.e.c.)      | Esprontzeda  |
| Falces        | Faltzes          | (N.t.e.e.c.)      | Faltzes      |
| Marcilla      | Martzilla        | (N.t.e.e.c.)      | Martzilla    |
| Sansol        | Santzol          | (N.t.e.e.c.)      | Santsol      |
| Santacara     | Santakara        | (N.t.e.e.c.)      | Santakara    |

## b) Erdal idazkera gordetzen dutenak

| Izen ofiziala     | 1979ko izendegia           | 1990eko izendegia | Euskal izena      |
|-------------------|----------------------------|-------------------|-------------------|
| Arguedas          | Argetas                    | (N.t.e.e.c.)      | Arguedas          |
| Cabanillas        | Kabanillas = Kapanaga*     | (N.t.e.e.c.)      | Cabanillas        |
| Cabredo           | Kabredo = Ahuntzegi*       | (N.t.e.e.c.)      | Cabredo           |
| Cadreira          | Kadereita                  | (N.t.e.e.c.)      | Cadreira          |
| Caparroso         | Kaparroso                  | (N.t.e.e.c.)      | Caparroso         |
| Cárcar            | Karkar = Karakarre         | (N.t.e.e.c.)      | Cárcar            |
| Cascante          | Kaskante                   | (N.t.e.e.c.)      | Cascante          |
| Castejón          | Kastejon                   | (N.t.e.e.c.)      | Castejón          |
| Cintruéniigo      | Zentroniko                 | (N.t.e.e.c.)      | Cintruéniigo      |
| Corella           | Korella                    | (N.t.e.e.c.)      | Corella           |
| Cortes            | Kortes                     | (N.t.e.e.c.)      | Cortes            |
| El Busto          | Busto                      | (N.t.e.e.c.)      | El Busto          |
| Lapoblación       | Meanuri*                   | (N.t.e.e.c.)      | Lapoblación       |
| Lerín             | Lerin                      | (N.t.e.e.c.)      | Lerin             |
| Marañón           | Marañon                    | (N.t.e.e.c.)      | Marañón           |
| Mélida            | Melida                     | (N.t.e.e.c.)      | Mélida            |
| Monteagudo        | Monteagudo = Mendikute*    | (N.t.e.e.c.)      | Monteagudo        |
| Murchante         | Murtxante                  | (N.t.e.e.c.)      | Murchante         |
| Murillo el Cuende | Murelu(-Konde)*            | (N.t.e.e.c.)      | Murillo el Cuende |
| Murillo el Fruto  | Murelu(-Hautsi)*           | (N.t.e.e.c.)      | Murillo el Fruto  |
| Ribaforada        | Ribaforada = Erripazuloaga | (N.t.e.e.c.)      | Ribaforada        |
| San Adrián        | San Adrian                 | (N.t.e.e.c.)      | San Adrián        |
| Torres del Río    | Torres = Dorreaga*         | (N.t.e.e.c.)      | Torres del Río    |
| Valtierra         | Balterra                   | (N.t.e.e.c.)      | Valtierra         |
| Viana             | Biana                      | (N.t.e.e.c.)      | Viana             |

## 6) Eskualdeak eta Merindadeak

### a) Eskualdeei buruzko ohar argigarria

Hurrengo zerrendetan ikusten ahal den bezala, Nafarroako udal izendegiaren laugarren zutabearen eskualdeen izen espezifikokoak txertatu dira eta horiek erabil daitezke inolako generikorik gehitu gabe. Jakina da Nafarroan, anitzetan, ibarrak eta bertako udaletako batek izen bera izan ohi dutela (*Anue* ibarra eta udala) eta, beste batzuetan, ibarrak eta udalak ez ezik, hango herri batek ere bai (*Aranguren* ibarra, udala eta herria). Halakoetan, adierazi nahi den lur eremua zein den zehaztea nahitaezkoztat jotzen bada, aterabidea eskualdearen izen espezifikoari generikoa gehitzea izaten da.

Baina zein generiko?

Nafarroan *ibarra* eta *harana* dira ohikoenak<sup>4</sup>. Bien artean, *ibarra* generikoari eman ohi zaio lehentasuna: *Aranguren ibarra*, *Baztan ibarra*, *Lana ibarra*, *Larraun ibarra*, *Longida ibarra*, *Ultzama ibarra*..., baina izen espezifikokoak bere baitan *ibar* hitza baldin badarama, kakofonia saihesteko *harana* erabili ohi da: *Ibargoiti harana*, *Oibar harana*...

Dena dela, azpimarratu nahi da nahitaezko kasuetan soilik erabili beharko lirakekeela generikoak, normalki ez baita beharrezkoa halakorik gehitzea, eta bereziki kasu hauetan:

- Ibarraren edota eskualdearen izena, aldi berean, udal edo herri batena ez denean: *Aezkoa*, *Bortzi-riak*, *Malerreka*, *Zaraitzu*...
- *-ibar* amaiera izanik, udal ez direnak: *Egaibar*, *Erronkaribar*, *Etxauribar*, *Iguzkitzaiabar*, *Izarbeibar*, *Lizainibar*, *Mañeruibar*, *Orbaibar*.
- *-aran* amaiera izanik, udal ez direnak: *Leitzarar*.
- *-erria* amaiera izanik, udal ez direnak: *Estellerria*, *Iruñerria*, *Zangozerria*...
- *-aldea* amaiera izanik, udal ez direnak: *Aranatzaldea*, *Baztanaldea*, *Vianaldea*.

Honako hauek dira Nafarroako udal izendegian aipatzen diren eskualdeak eta ibarrak:

| Eskualdea                    | Merindadea |
|------------------------------|------------|
| Aezkoa                       | Zangoza    |
| Aguilar                      | Lizarra    |
| Allin                        | Lizarra    |
| Ameskoa ibarrak <sup>5</sup> | Lizarra    |

<sup>4</sup> Ez da *bailara* erabili behar, Hiztegi Batuan agerienez: “**bailara** iz. *Gip.* ‘eskualde txikia’ (ez da *haran* edo *ibar*-en sinonimoa)”.

<sup>5</sup> Gogoratu behar da *Ameskoa ibarrak* izenaren bigarren zatia generikoa dela, eta izen osoa deklinatzean honela erabili behar dela: *Ameskoa ibarrak*, *Ameskoa ibarrekin*, *Ameskoa ibarretan*, *Ameskoa ibarretako*, *Ameskoa ibarretatik*, *Ameskoa ibarretara*..., baina artikulua plurala galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Ameskoa ibar maiteak*, *Ameskoa ibar guztietan*, *gure Ameskoa ibar hauek*...

| Eskualdea  | Merindadea |
|--|------------|
| Antsoain zendea                                  | Iruñea     |
| Anue   | Iruñea     |
| Araitz   | Iruñea     |
| Arakil   | Iruñea     |
| Aranatzaldea (-a) <sup>6</sup>                   | Iruñea     |
| Aranguren  | Zangoza    |
| Artzibar   | Zangoza    |
| Atetz  | Iruñea     |
| Basaburua (-a) <sup>7</sup>                      | Iruñea     |
| Baztan   | Iruñea     |
| Baztanaldea (-a) <sup>8</sup>                    | Iruñea     |
| Berrotza   | Lizarra    |
| Bortziriak (-ak), Bortzerriak (-ak) <sup>9</sup> | Iruñea     |
| Burunda  | Iruñea     |
| Deierri  | Lizarra    |
| Doneztebe Iguzkitza                              | Lizarra    |
| Egaibar  | Lizarra    |
| Eguesibar  | Zangoza    |
| Elortzibar                                       | Zangoza    |
| Erroibar   | Zangoza    |
| Erromantzatua (-a) <sup>10</sup>                 | Zangoza    |
| Erronkaribar                                     | Zangoza    |
| Estellerria (-a) <sup>11</sup>                   | Lizarra    |
| Estellerriko Erribera                            | Lizarra    |
| Esteribar  | Zangoza    |
| Etxauribar                                       | Iruñea     |
| Ezkabarte  | Iruñea     |

<sup>6</sup> Gogoratu behar da *Aranatzaldea* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Beraz, izena erabiltzean, honakoa da bidea: *Aranatzaldea, Aranatzaldearekin, Aranatzaldean...*, baina *Aranatzaldeko, Aranatzaldetik, Aranatzaldera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Aranatzalde maitea, Aranatzalde osoan, gure Aranatzalde hau...*

<sup>7</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

<sup>8</sup> id.

<sup>9</sup> Gogoratu behar da *Bortziriak* eta *Bortzerriak* izenen *-ak* bukaera artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izena erabiltzean, honakoa da bidea: *Bortziriak, Bortzirikin, Bortziritan, Bortziritako, Bortziritatik, Bortziritara...* Era berean, izen honek azken amaiera hori galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Bortziri maiteak, gure Bortziri hauek...*

<sup>10</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

<sup>11</sup> id.

| Eskualdea                                 | Merindadea      |
|---|-----------------|
| Galar zendea                              | Iruñea          |
| Gesalatz                                  | Lizarra         |
| Goñerri, Goñibar                          | Lizarra         |
| Ibargoiti                                 | Zangoza         |
| Iguzkitzaibar                             | Lizarra         |
| Imotz                                     | Iruñea          |
| Iruñerria (-a) <sup>12</sup>              | Iruñea, Zangoza |
| Itza zendea                               | Iruñea          |
| Itzagaondo (-a) <sup>13</sup>             | Zangoza         |
| Izarbeibar                                | Iruñea          |
| Lana                                      | Lizarra         |
| Larraun                                   | Iruñea          |
| Leitzaran                                 | Iruñea          |
| Lizoainibar                               | Zangoza         |
| Longida                                   | Zangoza         |
| Los Arcosko Bostiriak (-ak) <sup>14</sup> | Lizarra         |
| Malerreka                                 | Iruñea          |
| Mañeruibar                                | Lizarra         |
| Nabaskoze almiradioa (-a) <sup>15</sup>   | Zangoza         |
| Odieta                                    | Iruñea          |
| Oibar                                     | Zangoza         |
| Olaibar                                   | Iruñea          |
| Ollaran, Olloibar                         | Iruñea          |
| Oltza zendea                              | Iruñea          |
| Orbaibar                                  | Erriberri       |
| Txulapain                                 | Iruñea          |
| Ultzama                                   | Iruñea          |
| Untzitibar                                | Zangoza         |
| Urraul ibarrak <sup>16</sup>              | Zangoza         |
| Urumealdea (-a) <sup>17</sup>             | Iruñea          |

<sup>12</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

<sup>13</sup> id.

<sup>14</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Bortziriak* izenaren oin-oharra.

<sup>15</sup> Gaztelaniazko *Almiradío de Navascués* izendapenaren euskal ordaina. Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

<sup>16</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Ameskoa ibarrak* izenaren oin-oharra.

<sup>17</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

| <b>Eskualdea</b>               | <b>Merindadea</b>                    |
|--------------------------------|--------------------------------------|
| Vianaldea (-a) <sup>18</sup>   | Lizarra                              |
| Xareta                         | Iruñea, Lapurdi Garaia <sup>19</sup> |
| Zangozerria (-a) <sup>20</sup> | Zangoza                              |
| Zaraitzu                       | Zangoza                              |
| Zizur zendea                   | Iruñea                               |

### b) Merindadeak

Izendegiaren bosgarren zutabeen merindadeen izenak gehitu dira, gaur egungo Nafarroa osatzen duten bost merindadeetatik –Erriberrikoa, Iruñekoa, Lizarrakoa, Tuterakoa eta Zangozakoa–, udal bakoitzari dagokiona. Jakina denez, seigarrena Nafarroa Beherea zen.

<sup>18</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

<sup>19</sup> Lapurdiko eskualdea. *Xareta* izeneko elkarte honetan Baztanaldeko Urdazubi eta Zugarramurdi ez ezik, Lapurdi Garaiko Ainhua eta Sara ere sartzen dira.

<sup>20</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Aranatzaldea* izenaren oin-oharra.

## 2.4.2. Euskal izenaren arabera

*Izen ofiziala* tituluko zutabearen ageri diren udal izenak Nafarroako Gobernuak *Nafarroako Izendegia 2009-01-01ean* liburuan argitaratutako izenak dira. Izen horiek guztiak ez datoz bat Gobernuak orduz geroztik 2010eko abendua arte zenbait Foru Dekretu eta Erabakitan onartutakoekin. Halakoetan, oin-oharrean txertatu da Dekretu edota Erabakiaren erreferentzia.

Nafarroako Gobernuaren *Nafarroako Izendegia 2009-01-01ean* argitalpenean ez dira ageri eskualdeen izenak, zerrenda horretatik kanpo geratzeaz gain, Gobernuak ez dituelako izen horiek guztiak ofizialki definituak. Hala ere, lagungarri izanen delakoan, Euskaltzaindiari egoki iruditu zaio, Nafarroan kasu gehienetan ohi den bezala, udal bakoitza kokatua dagoen ibar, eskualde edo eremuaren izena ematea. Azken hauen izen espezifikoa txertatu da *Eskualdea* zutabearen.

| Euskal izena                    | Izen ofiziala                | Herritar izena          | Eskualdea     | Merindadea |
|---------------------------------|------------------------------|-------------------------|---------------|------------|
| Abaigar                         | Abáigar                      | abaigartar              | Egaibar       | Lizarra    |
| Abartzuza                       | Abárzuza                     | abartzuzar              | Deierri       | Lizarra    |
| Abaurregaina (-a) <sup>21</sup> | Abaurregaina / Abaurrea Alta | abaurrear <sup>22</sup> | Aezkoa        | Zangoza    |
| Abaurrepea (-a) <sup>23</sup>   | Abaurrepea / Abaurrea Baja   | abaurrepetar            | Aezkoa        | Zangoza    |
| Aberin                          | Aberin                       | aberindar               | Iguzkitzaibar | Lizarra    |
| Ablitas                         | Ablitas                      | ablitastar              | Tutera        |            |
| Adios                           | Adiós                        | adiostar                | Izarbeibar    | Iruñea     |
| Agoitz <sup>24</sup>            | Aoiz <> Agoitz <sup>25</sup> | agoiztar, agoizko       | Longida       | Zangoza    |
| Aguilar Kodes                   | Aguilar de Codés             | aguilartar              | Aguilar       | Lizarra    |
| Aiegi                           | Ayegui <> Aiegi              | aiegiar                 | Iguzkitzaibar | Lizarra    |
| Alesbes                         | Villafranca                  | alesbestar              | Tutera        |            |
| Allin                           | Allín <> Allin <sup>26</sup> | allindar                | Allin         | Lizarra    |

<sup>21</sup> Kontuan izan behar da izenaren amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik. Ondorioz, *Abaurregaina* izena erabiltzean, honakoa da bidea: *Abaurregaina, Abaurregainarekin...*, baina *Abaurregainean, Abaurregaineko, Abaurregainetik, Abaurregainera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Abaurregain maitea, Abaurregain osoan, gure Abaurregain hau...*

<sup>22</sup> Abaurrepeko herritarrengandik bereizteko *abaurregaindar* ere erabil daiteke.

<sup>23</sup> Kontuan izan behar da izenaren amaierako *-a* ez dela itsatsia, artikulua baizik. Ondorioz, *Abaurrepea* izena erabiltzean, honakoa da bidea: *Abaurrepea, Abaurrepearekin, Abaurrepean...*, baina *Abaurrepeko, Abaurrepetik, Abaurrepera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Abaurrepe maitea, Abaurrepe osoan, gure Abaurrepe hau...*

<sup>24</sup> Gogoratu behar da *Agoitz* izenaren bukaerako txistukaria frikari bihurtzen dela hainbat kasu marka hartzean. Hortaz, deklinatzean, honakoa da gomendatzen den bidea: *Agoitz, Agoitzen, Agoitzekin...*, baina *Agoizko, Agoiztik...*

<sup>25</sup> Nafarroan erabili ohi den <> ikur honetaz esan behar da, Euskaltzaindiak bere 141. arauan ezartzen duenaren arabera, hizkuntza desberdinen izenen arteko aukera hori aditzera emateko zehar marra (/) erabili behar dela: *Aoiz / Agoitz*.

<sup>26</sup> Nafarroako Gobernuak 2010eko abenduaren 13an *Allin* euskal era gaztelaniazko *Allín* izenarekin batera ofiziala izatea erabaki zuen, eta 2010eko abenduaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.



| Euskal izena                      | Izen ofiziala             | Herritar izena         | Eskualdea               | Merindadea |
|-----------------------------------|---------------------------|------------------------|-------------------------|------------|
| Allo <sup>27</sup>                | Allo                      | alloar                 | Estellerriko Erribera   | Lizarra    |
| Altsasu                           | Altsasu / Alsasua         | altsasuar              | Burunda                 | Iruñea     |
| Ameskoabarrena (-a) <sup>28</sup> | Améscoa Baja              | ameskoar <sup>29</sup> | Ameskoa ibarrak         | Lizarra    |
| Andosilla                         | Andosilla                 | andosillar             | Estellerriko Erribera   | Lizarra    |
| Antsoain                          | Ansoáin <> Antsoain       | antsoaindar            | Antsoain zendea         | Iruñea     |
| Antzin                            | Ancín <> Antzin           | antzindar              | Egaibar                 | Lizarra    |
| Anue                              | Anue                      | anuetar                | Anue                    | Iruñea     |
| Añorbe                            | Añorbe                    | añorbear               | Izarbeibar              | Iruñea     |
| Araitz <sup>30</sup>              | Araitz                    | araitzar               | Araitz                  | Iruñea     |
| Arakil                            | Arakil                    | arakildar              | Arakil                  | Iruñea     |
| Aranaratxe                        | Aranarache <> Aranaratxe  | aranaratxear           | Ameskoa ibarrak         | Lizarra    |
| Aranguren                         | Aranguren                 | arangurendar           | Aranguren               | Zangoza    |
| Arano                             | Arano                     | aranoar                | Urumealdea              | Iruñea     |
| Arantza                           | Arantza                   | aranaztar              | Bortziriak, Bortzerriak | Iruñea     |
| Aras                              | Aras                      | arastar                | Vialaldea               | Lizarra    |
| Arbizu                            | Arbizu                    | arbizuar               | Aranatzaldea            | Iruñea     |
| Arellano                          | Arellano                  | arellanoar             | Iguzkitzaiabar          | Lizarra    |
| Areso                             | Areso                     | aresoar                | Leitzaran               | Iruñea     |
| Arguedas                          | Arguedas                  | arguedastar            | Tutera                  |            |
| Aria                              | Aria                      | ariatar                | Aezkoa                  | Zangoza    |
| Aribe                             | Aribe                     | aribear                | Aezkoa                  | Zangoza    |
| Armañanzas                        | Armañanzas                | armañantzastar         | Los Arcosko Bostiriak   | Lizarra    |
| Arroitx <sup>31</sup>             | Arróniz                   | arroitzar              | Doneztebe Iguzkitza     | Lizarra    |
| Arruazu                           | Arruazu                   | arruazuar              | Aranatzaldea            | Iruñea     |
| Artaxoa                           | Artajona                  | artaxoar               | Erriberri               |            |
| Artazu                            | Artazu                    | artazuar               | Mañeruiabar             | Lizarra    |
| Artzibar <sup>32</sup>            | Valle de Arce <> Artzibar | artzibartar            | Artzibar                | Zangoza    |
| Atarrabia                         | Villava <> Atarrabia      | atarrabiar             | Iruñea                  |            |
| Atetz <sup>33</sup>               | Atez                      | ateztar                | Atetz                   | Iruñea     |

<sup>27</sup> Oteitzan dokumentatu den *Alubidia* toponimoak, gaur egun *Lubiria* izenez ezagun denak, argi erakusten du euskaldunek *Alu* erabiltzen zutela herri hau izendatzeko. Hala ere, hitz horrek lexiko arruntean duen esanguragatik, ez dirudi berreskuratzea egokia denik.

<sup>28</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Abaurregaina* izenaren oin-oharra.

<sup>29</sup> Ameskoabarreneko eta Ameskoagoieneko biztanleak bereizi behar izanez gero, *ameskoabarrendar* eta *ameskoagoiendar* erabil daitezke.

<sup>30</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Agoitz* izenaren oin-oharra.

<sup>31</sup> id.

<sup>32</sup> Kontuan izan *Artzi* izena duen herria ere badela.

<sup>33</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Agoitz* izenaren oin-oharra.

| Euskal izena                 | Izen ofiziala         | Herritar izena       | Eskualdea                | Merindadea |
|------------------------------|-----------------------|----------------------|--------------------------|------------|
| Auritz <sup>34</sup>         | Auritz / Burguete     | auriztar             | Zangoza                  |            |
| Azagra                       | Azagra                | azagrar              | Estellerriko Erribera    | Lizarra    |
| Azkoien                      | Peralta <> Azkoien    | azkoienar            | Erriberri                |            |
| Azuelo                       | Azuelo                | azueloar             | Aguilar                  | Lizarra    |
| Bakaiku                      | Bakaiku               | bakaikuar            | Burunda                  | Iruñea     |
| Barañain                     | Barañáin              | barañaindar          | Zizur zendea             | Iruñea     |
| Barasoain                    | Barásóain             | barasoaindar         | Orbaibar                 | Erriberri  |
| Barbarin                     | Barbarin              | barbarindar          | Doneztebe Iguzkitza      | Lizarra    |
| Bargota                      | Bargota               | bargotar             | Vialaldea                | Lizarra    |
| Barillas                     | Barillas              | barillastar          | Tutera                   |            |
| Basaburua (-a) <sup>35</sup> | Basaburua             | basaburuar           | Basaburua                | Iruñea     |
| Baztan                       | Baztan                | baztandar            | Baztan                   | Iruñea     |
| Beire                        | Beire                 | beiretar             | Erriberri                |            |
| Bera                         | Bera <sup>36</sup>    | beratar              | Bortzirriak, Bortzerriak | Iruñea     |
| Beraskoain                   | Belascoáin            | beraskoaindar        | Etxauribar               | Iruñea     |
| Berbintzana                  | Berbinzana            | berbintzandar        | Erriberri                |            |
| Beriain                      | Beriáin               | beriaindar           | Galar zendea             | Iruñea     |
| Berriobeiti                  | Berrioplano           | berriobeitiar        | Antsoain zendea          | Iruñea     |
| Berriozar                    | Berriozar             | berriozartar         | Antsoain zendea          | Iruñea     |
| Bertizarana <sup>37</sup>    | Bertizarana           | bertizarandar        | Malerreka                | Iruñea     |
| Betelu                       | Betelu                | beteluar             | Araitz                   | Iruñea     |
| Bidankoze                    | Vidángoz <> Bidankoze | bidankoztar          | Erronkaribar             | Zangoza    |
| Bidaurreta                   | Bidaurreta            | bidaurretar          | Etxauribar               | Iruñea     |
| Biurrun-Olkotz <sup>38</sup> | Biurrun-Olcoz         | biurrundar, olkoztar | Izarbeibar               | Iruñea     |
| Buñuel                       | Buñuel                | buñueldar            |                          | Tutera     |
| Burgi                        | Burgui <> Burgi       | burgiar              | Erronkaribar             | Zangoza    |
| Burlata                      | Burlada <> Burlata    | burlatar             | Eguesibar                | Zangoza    |
| Cabanillas                   | Cabanillas            | cabanillastar        |                          | Tutera     |
| Cabredo                      | Cabredo               | cabredoar            | Aguilar                  | Lizarra    |
| Cadreita                     | Cadreita              | cadreitar            |                          | Tutera     |
| Caparroso                    | Caparroso             | caparrosoar          |                          | Erriberri  |

<sup>34</sup> id.

<sup>35</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Abaurrepea* izenaren oin-oharra.

<sup>36</sup> Nafarroako Gobernuak 2009ko abuztuaren 10ean *Bera / Vera de Bidasoa* udalerriaren izen ofiziala *Bera* izatea erabaki zuen, eta 2009ko irailaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

<sup>37</sup> Nahiz eta azken *-a* etimologikoki artikulua izan, aspaldixko bat egin du izenarekin eta deklinatzean haren zatia balitz bezala erabiltzen da: *Bertizaranako, Bertizaranan, Bertizaranatik...*

<sup>38</sup> Deklinatzean, gogoan izan *Agoitz* izenaren oin-oharra.

| Euskal izena                     | Izen ofiziala                | Herritar izena | Eskualdea             | Merindadea |
|----------------------------------|------------------------------|----------------|-----------------------|------------|
| Cárcar <sup>39</sup>             | Cárcar                       | carcartar      | Estellerriko Erribera | Lizarra    |
| Cascante                         | Cascante                     | cascantear     |                       | Tutera     |
| Castejón <sup>40</sup>           | Castejón                     | castejondar    |                       | Tutera     |
| Cintruénigo <sup>41</sup>        | Cintruénigo                  | cintruénigoar  |                       | Tutera     |
| Corella                          | Corella                      | corellar       |                       | Tutera     |
| Cortes                           | Cortes                       | cortestar      |                       | Tutera     |
| Deierrri                         | Valle de Yerri <> Deierrri   | deierriar      | Deierrri              | Lizarra    |
| Deikaztelu                       | Dicastillo                   | deikazteluar   | Iguzkitzaibar         | Lizarra    |
| Desoio                           | Desojo                       | desoioar       | Aguilar               | Lizarra    |
| Donamaria                        | Donamaria                    | donamariar     | Malerreka             | Iruñea     |
<sup>2</sup> Ibidem, 1393 eta 1394. orrialdeetan, hurrenez hurren.

<sup>3</sup> *Guero*, Bordele 1633, 17. or. Ikus, halaber, Euskaltzaindiak 1988an Bilbon plazaraturiko facsimile edizioa.

<sup>4</sup> Juan de Tartas: *Onsa hilceco bidia*. Ortheze 1666. Facsimile edizioa, Julio Urquijoren ardurapean, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 27-30, 185-199. or.; 2, 1908, 569-581. or., eta 3, 1909, 561-636. or. Aipatu dugun adibidea hitzaurreari dagokio, “Gomendiosco letra” deituari, aldizkari horretan, 1, 1907, 28. or.

<sup>5</sup> *Gutum liburua*. Arabako Diputazioa, Gasteiz, 1975, 16. or.

<sup>6</sup> Ibid., 9. or. (gogora bedi *egun zari*, *eguzari* ‘jaia’ dela).

<sup>7</sup> *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo, 1905-1906. Facsimile argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

“oinez abiatu zen Hescual herrirat”.<sup>8</sup>

Ildo beretik Gratien Adéma *Zaldubi* (1828-1907) apaiz lapurtarraren *Gauden gu eskualdum* eta *Eskualdumak* poemetan, non tradiziozko zazpi probintziak azaltzen diren. Dakusagun, esaterako, bigarrenaren atal hau:

“Lapurdi, Nabarpe ‘ta Zubero,  
Eskualherriak Frantzian;  
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,  
berdin dire Espainian”.<sup>9</sup>

Are gehiago, denboraren joanean *Euskal Herria* izena gaztelaniara eta frantsesera hedatu zen. Estatu arteko mugaz alde bateko eta besteko erakunde eta agerkari batzuek izen hori izan dute, esaterako: *Sociedad Euskal-lerria* elkarteak, XIX. mendearen azken herenean Jaurerriko diputatu nagusi izandako Fidel de Sagarminagak Bilbon fundatuak, eta *Euskal-Erria* aldizkariak, Jose Manterolak 1889an Donostian sortuak. Orobat Ameriketetan: Los Angelesko *Californiako Eskual Herria* astekariak, 1893-1898; *La Platako Eskual Herria* astekariak, Buenos Airesen 1898an argitaratuak, edo Baionako *Eskual Herria* astekariak, 1898an sortuak. Geroago ere ohitura hori ez da eten. Besteak beste, Philippe Veyrinek, *Les Basques* bere liburu ospetsuan<sup>10</sup>, *Eskual-Herri* darabil behin baino gehiagotan.

Euskal kantutegiak, halaber, ezin konta ahaleko aipamenak dakartza *Euskal Herria*-z. Besteak beste, Done Mikel Aralarkoaren herri kanta tradizionala dugu, errepika hau duena:

“Miguel, Miguel, Miguel guria,  
Zaizu, zaizu Euskal Herria”.

Juan de Bera kaputxino nafarrak Oiartzunen predikatu zuen 1834an. Sermoiaren lehen bi orrialdeak euskaraz idatzi zituen, eta gainerako testua gaztelaniaz, eta Frantzisko Xabierkoaz ari zelarik, honela zioen:

“Jayo cela gure Españian, vskal Errian, Nafarruan”.<sup>11</sup>

*Euskal Herria* eskuarki erabili izan da, bestalde, ideologia eta pentsamolde alor guztietan. Hona hemen adibide batzuk, ediren litezkeen ugarien artetik jasoak:

<sup>8</sup> Francisco Laphitz: *Bi saindu hescualdunen bizia: san Iñazio Loiolacoarena eta san Francisco Zabierecoarena*. Baiona, 1867. Adibidea 140. orrialdean aurkitzen da.

<sup>9</sup> Neurtitz hauek guztiok *Revista Internacional de Estudios Vascos* 3, 1909, 396 eta 399. orrialdeetan irakur daitezke. Ediziorik eskuragarriena, ordea, Alex Bengoetxearena dateke: *Kantikak eta neurtitzak*, Ediciones Mensajero-Gero, Donostia, 1991. Hemen aipaturiko pasarteok, 166 eta 177. orrialdeetan daude edizio horretan.

<sup>10</sup> 1. argitaraldia, Baiona, 1943. 2a, Paris, 1975.

<sup>11</sup> Patxi Ondarra: “Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena”. *Euskera* 26, 1981:2, 640. or. Ikus orobat egile beraren “España, País Vasco, Navarra”. *Diario de Navarra*, 2003ko otsailaren 2koa, 21. or.

Salvador Castilla Alzugaray (Iruñea 1819 - Donostia 1884), errepublikazaleak, 1878ko uztailaren 15ean hitzaldi bat egin zuen Iruñean, Asociación Euskara de Navarraren batzar batean, eta han bilduei *Euskal-Erria* maitatzen jarrai zezaten eskatu.<sup>12</sup>

Vianako semea zen Francisco Navarro Villoslada eleberrigileak (1818-1895), tradizionalistak, “De lo prehistórico en las Provincias Vascongadas” idazlanean (1877) honela dio:

“...pero ellos no se dan a sí propios ese apelativo, ni el de *vascongados*, ni otro más que el de *escualdunas* bajo cuya denominación comprenden a todo el que habla la lengua euscara, sea español o francés, llamando asimismo escualherria, literalmente tierra de *escualdunas*, a todas las provincias que hablan la lengua euscara y pueblan ambas vertientes de los Pirineos occidentales: navarros, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos, españoles; suletinos y laburdinos, franceses”.<sup>13</sup>

Román Zubiaga buruzagi karlista bizkaitarrak, orduan kadete zen Santiago Palaciorekin Gernikako Batzar Etxerako bisitan zihoala, honetara esan zion:

“...las tribus más celosas de su independencia refugiáronse en las montañas de aquende y allende el Pirineo, constituyendo la Euskalerría, es decir, el país de euscaldunac, de los que hablan el idioma éuskaro...”.<sup>14</sup>

Iruñeko alaba zen Dolores Baleztina (1895-1989) idazle karlista nafarrak *Euskalerría* izena maiz erabiltzen du, adibidez, euskal zibilizazioari buruz ari denean:

“...la figura del bersolari, ese admirable bardo de la Euskalerría genuinamente popular, que con asombrosa agilidad de imaginación y habilidad en versificar, riñe torneos de ingenio discurriendo por los temas más dispares [...] Dignos discípulos del inmortal Iparraguirre, también voluntario de Carlos V, que con su voz arrebatadora, subyugaba auditorios de naciones extranjeras, cantando a la amacho maitia, al blanco querube de Euskalerría, a España, “lur oberikan ez da Europa Guziyan”, la tierra mejor cual no hay otra en Europa...”.<sup>15</sup>

<sup>12</sup> Angel García-Sanz Marcotegui: “Los liberales navarros ante la irrupción del euskerismo”, Roldán Jimeno Arangurenen zuzendaritzapean agertu liburuan: *El euskera en tiempo de los éuskaros*. Nafarroako Gobernua - Nafarroako Ateneoa, Iruñea, 2000, 145-218. or.; Salvador Castilla Alzugarayren aipua 152-153. orrialdeetan dator.

<sup>13</sup> Carlos Mata Induráin: “Amaya da asiera: la actitud de Navarro Villoslada ante el vascuence”, aurreko oharrean aipatu liburuan, 113-144. or. Pasarte hori 120. orrialdean dago.

<sup>14</sup> José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamiela, Iruñea, 2000, 134. or. Santiago M. Palaciok Zubiagaren ahotik entzundakoa *El batallón de Guernica* bere liburuan bildu zuen, Editorial Tradicionalista, Bartzelona, 1917, 80. or.

<sup>15</sup> Dolores Baleztina Azcárate: *Saski naski de Leiza*. Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1976, 28. or. (“Temas de Cultura Popular” saillean 272. zenbakia du liburuxkak).

Jesús Etayok 1921eko maiatzaren 17an *El Pensamiento Navarro*-n “Ante el cuarto centenario de la herida de Iñigo de Loyola” artikulua idatzi zuen. Besteak beste, honako hau irakur daiteke: “...como vascos, porque, a pesar de la gran desviación histórica padecida por nuestra raza, Ignacio era vasco y todos los vascos somos participantes de las glorias de Euskalerría...”<sup>16</sup>

Honen kontura egoki datorke *Oriamendi* ere aipatzea, karlisten himnoa, honela baitio:

“Gora Espainia eta Euskal Herria!  
Ta bidezko errege.  
Maite degu Euskal Herria,  
Maite bere fuero zaharrak”.

Erabilera guztiz ohiko horren ispilua José María Iribarrenen *Vocabulario navarro* (1952) deritzanean ere ediren daiteke. Honela dio:

“*Euskalerría*: “Nombre que dan al País Vasco; es decir, a Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y Navarra en España, y Laburdi, Benabarre y Zuberoa en el país vasco-francés”.<sup>17</sup>

Ikusten ari garen kontzeptu hau gaztelaniaz eta frantsesez era batzuetara adierazi da: *Vasconia*, *País Vasco*, *País Vasco-Navarro*, *Vasconie*, *Pays Basque*. Azpimarratzekoa da *País Vasco* frantsesezko *Pays Basque*-ren oihartzuna dela eta XIX. mendean zehar hedatu zela. Lehenago *Basque* forma hutsa erabiltzen zen frantsesez, substantibo gisa. Esaterako, Jean Baptiste Nolin-en mapa famatuan (Paris, 1704) *Mer de Basque* ikus daiteke, eta horren azpian *Tarbellicus sinus* latinezko ordaina.

Aipatuez gainera, bada liburu usaineko izen bat: *Euskaria*, eta hortik datoz *euskaro* eta *euskarien* adjektiboak. Hiru izenok, begi bistakoa denez, hizkuntzaren izenetik datoz, hots, *euskara*-tik. Gogora ditzagun, besteak beste, *Asociación Euskara de Navarra*, 1877an fundatua, eta beronek hurrengo urtean sortu zuen *Revista Euskara*.

XIX. mendea amaitu baino lehentxeago Sabino Arana-Goirik (1865-1903) *Euskadi* izena sortu zuen, uste izanik *Euskal Herria* izenak ez zuela izaki politikorako balio. Horretarako, gorago aipatu dugun *Euskaria* eduki zuen gogoan, eta *-di* leku atzizkia erantsi zion. Izen horrek –bere asmatzaileak aurrenik *s*-rekin idatzi (*Euskadi*) eta geroago *z*-rekin (*Euzkadi*) hobetsi zuenak– erabilera nabarmena izan du. Hala ere, haste-hastetik izen berri horrekin bat ez zetozen anitzen iritziak entzun ziren. Haien artetik Arturo Campión iruindar poligrafo eta historialaria nabarmendu zen. Gai horri buruz artikulua garratzak idatzi zituen, eta bereziki “Sobre el nuevo bautizo del País Basko” deritzana<sup>18</sup>. Halako egitismo politiko batengatik *Euskal Herria* ordezkatzeko saio horrek gorabehera sonatu batzuk ekarri zituen aldean, esaterako, 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Lehen Biltzarraren hitzaldi batean, Resurrección M<sup>a</sup> Azkuek, hurrengo urtetik 1951n hil arte euskaltzainburua izango zenak, pairatu behar izan zuen zenbaiten protesta.

<sup>16</sup> José Javier López Antónek aipatua: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, 191. or.

<sup>17</sup> José María Iribarren: *Vocabulario navarro*. Nafarroako Diputazioa, Iruñea, 1952. Adibidea, s.u., 229. or. Ikus 2. argitaraldia, Ricardo Ollaquindiaren ardurapean. *Diario de Navarra* egunkariaren argitaletxea, Iruñea, 1995, s.u., 226. or.

<sup>18</sup> *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 148-153. or.



Urteak aurrera joan ahala, *Euskal Herria* izenak bere adiera neutroarekin iraun du, *Euskadi*-ren lehiakidetza izan arren. Alferlana litzateke adibide gehiago hona ekartzea. Aski dateke Bonifacio Etxegarai jaunak, Epaitegi Goreneko idazkari eta euskaltzain osoak, Espasa entziklopediarako (1929) idatzi zuen *Vasconia* artikulua gogoratzea; Batzorde Eragileen (Diputazioen) *Proyecto de Estatuto Vasco-Navarro* delakoa (1932), euskaraz *Euskal Herria* erdarazko *País Vasco-Navarro*-ren baliokidea erabiltzen duena, edo TVE-ren *Euskal Herria* programaz oroitzea, demokraziarako bidea hasi bezain laster eman zena (1976-1977).

Azpmarratzekoa da Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren (1979) 1. artikulua testu nahasia, honela baitio: “Euskal Herria [...] Espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da [...]”.<sup>19</sup>

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian, Euskaltzaindiak, Baionako ordezkarietan 1979.eko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez erabaki zuen lehendakariari gutun bat bidaltzea; erabaki hori “*Euskal Herri* hitza ez baztertzeaz” tituluekin argitaratu zen *Euskera* aldizkarian.<sup>20</sup>

Horrez gainera, itzal handiko pentsalari batzuek, hala nola José Miguel de Azaola saiakeragileak, artikulua horren testuarekin ados ez zeudela argi erakutsi zuten, bai eta *Euskal Herria* –agerian edo ezkutuan– saihesteko asmoaren aurka ere.

Euskaltzaindiak, politika alorretik landa eta sineste zein ideologia guztien gainetik, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuan finkaturiko xedeetako bati erantzunez, zeinetan Euskaltzaindiari hizkuntza jagoteko helburua onartzen zaion, nahitaezkoa dakusa *Euskal Herria* izenaren egokitasuna eta zehaztasuna berrestea. Izen hori guztiena da, eta horregatik ezin daiteke alderdikieriaz erabil, zoritxarrez inoiz gertatu eta orain ere gertatzen bada ere. Hori, jakina, herrialde bakoitzaren deitura bereziari eta izen politiko-administratiboei kalterik egin gabe.

Goiago adierazi guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela izate politiko administratibo konkretu baten baliokide. Aldi berean, gogorazi nahi du mendez mendeko tradizio luzeari begirunea zor zaiola, eta inork eta ezerk ez du tradizio hori hausteko edo bere gogara aldatzeko eskubiderik.

<sup>19</sup> Gaztelaniaz: “El Pueblo Vasco o Euskal-Herria [...] se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de *Euskadi* o *País Vasco*“. Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, *Boletín Oficial del Estado*, 306. zk, 1979ko abenduaren 22koa.

<sup>20</sup> Ikus testu osoa *Euskera* aldizkarian, 24, 1979:1, 115-117. or.

### Araua

Gauzak horrela direlarik, eta 2003ko uztailaren 18an Euskaltzaindiak, Donostian onarturiko adierazpenean oinarriturik, honako Araua plazaratzen du:

1. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi *Euskal Herria* izena.

2. Idazkerari dagokionez, bi hitzetan eta biak letra larriz.

3. Gogoratu behar da bukaerako *-a* hori artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Euskal Herria*, *Euskal Herrian*, *Euskal Herriaren...*, baina *Euskal Herriko*, *Euskal Herritik*, *Euskal Herrira*. Beraz, gaizki daude *\*Euskal Herriako*, *\*Euskal Herriatik*, *\*Euskal Herrin* edo *\*Euskal Herriren* bezalakoak.

Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzailearen bat edo adjektibo bat daramanean. Adibidez: *Euskal Herri maitea*, *Euskal Herri osoan*, *gure Euskal Herri hau*, *zein Euskal Herri litzateke?*... Hortaz, ez daude ongi *\*Euskal Herria maitea*, *\*Euskal Herria osoan*. *\*gure Euskal Herria hau* eta *\*zein Euskal Herria litzateke*.

Euskaltzaindiak Abadiñon 2004ko uztailaren 23an onartua.



## 141. araua.- Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera

### 1) Sarrera

Neurri eta erritmo diferenteekin bada ere, azken garai hauetan aldaketa handiak ezagutu ditugu Euskal Herriko lekuen euskarazko izenen lege-onarpen eta erabilera publikoaren eremuetan. Horren ondorioz, gure herri, ibar, udal eta, oro har, leku asko izen ofizial bat baino gehiago izatera pasatu da. Konpetenziadun erakunde bakoitza, bere egoera soziolinguistiko eta aukera politiko demokratikoaren arabera, dagokion esparruaren izendapen ofizialen erabakien arduradun izan da eta, aurretik, derrigorrean Euskaltzaindiaren aholkua ere eskatu eta aintzat hartu behar izan du. Hala ere, herriek “elebitasun” hori ulertzeko erak desberdinak izan dira eta, ondorioz, izen ofizialen forma ez da beti bera izan. Batzuek hizkuntza bakoitzean dagokion eran erabiltzeko proposamena egin dute: *Donostia / San Sebastián, Lizarra / Estella...* Beste batzuek edozein hizkuntzatan biak erabiltzeko aukera hautatu dute: *Vitoria-Gasteiz, Ugao-Miraballes...* Hainbatek, diferentziak grafiazkoak zirela jo eta euskal forma hutsa onartu dute ofizial legez: *Aramaio, Arrankudiaga, Mutriku...* Kontrara, beste batzuek izen ofizialak lehendik zuten gaztelaniazko grafian utzi dituzte: *Elciego, Laguardia, Pueyo, Ribera Alta, Roncal...* Esan dugun bezala, legeriak eta egoera soziolinguistikoak ez dira bat bera Euskal Herriko barruti politiko guztietan.

Beste alde batetik, administrazioak hala erabakita, maiz lur-erakunde berriak sortzen dira. Ordu arte bereizirik egon diren entitateak elkartu egiten dira maiz eta kasu horietan, normalena izaten da udal, herri edo auzo “berriak” bi zaharren izenak jasotzea edo izen berri bat hartzea. Era honetan, Bizkaiko Durangaldeko *Apatamonasterio, Arrazola* eta *Axpe* elizateak elkartzetik, udal berri bat sortu zen eta *Atxondo* izena jaso zuen. Beste zenbait kasutan, herri elkarte horrek izenen elkarte besterik ez du hartzen eta honela sortu ziren *Ligi-Atherei, Markina-Xemein, Atharratze-Sorholúze, Aratz-Matxinbenta, Arraitz-Orkin, Beotegi-Menagarai, Añezkar-Oteitza...*

Euskal Herrian, zenbaitetan, herri izen bera ageri da herrialde batean eta bestean (*Getaria* Gipuzkoan eta Lapurdin, *Jatsu* Lapurdin eta Nafarroa Behereko Garazin, *Gamiz* Bizkaian eta Arabako lautadan, *Gaintza* Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko Araitzen...) edo herrialde beraren barrenean (*Ametzaga, Durruma, Subilla...* Araban; *Arteaga, Axpe, Elexalde...* Bizkaian; *Alegia, Garagartza, Zubieta...* Gipuzkoan; *Espartza, Etxarri, Hiriberri...* Nafarroa Garaian etab.). Garbi dago horrelako izen bikoitzak nahasgarri gerta daitezkeela eta, beharrezkoa denean, bereizgailuren bat erabili behar dela gauzak argi uzteko. Hau da administrazio publikoek jarraitzen duten bidea. Garai batean Espainiakoak, esate baterako, *Miranda de Arga, Sada de Sangüesa, Vera de Bidasoa* etab. eman zituen, Frantziakoak lehenago hartutako erabaki batean oinarrituta: *Saint-Jean-sur-Richelieu, Saint-Jean-de-Niost, Saint-Jean-d'Angély, Saint-Jean-de-Maurienne* etab. Euskaltzaindiak ere bereizteko irizpidea segitu zuen 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n eta egun, besteak beste, Kataluniako Institut d'Estudis Catalans-ek eta Galiziako Real Academia Galega-k bide horri jarraitzen diote.

Azkenik, euskaraz leku izen askoren amaierako *-a* ez da berezkoa, artikulua baizik. Halako kasuak ondo identifikatuta edukitzea, oso da garrantzitsua erabiltzailearentzat, zeren baldintzatzen baitu zeharo deklinabidea

burutzeko bidea. Bereziki euskara lan-tresna duten kazetari, esatari, irakasle, idazle eta abarrek, bide argiak behar dituzte kasu horiek identifikatzeko eta behar bezala jokatzeko. Esaterako, *Bizkaia* izenak *-a* hori artikulua duelako, *Bizkaitik*, *Bizkaira* eta *Bizkaiko* esan behar da, ez ordea *\*Bizkaiatik*, *\*Bizkaia* eta *\*Bizkaiaiko* era arrotzak, aipatu profesionalak maiz erabiltzen dituztenak. Ez da orobat gertatzen *Donostia* hitzarekin, *-a* hori berezkoa du eta ez da deklinabidean galdu behar. Ondorioz, *Donostiatik*, *Donostiara*, *Donostiako* esan behar da eta ez *\*Donostitik*, *\*Donostira*, *\*Donostiko*, noiz edo behin ere irakurri eta aditzen den bezala.

Euskal Herrian Euskaltzaindiari dagokio –hizkuntza gaietan erakunde aholkulari ofiziala denez gero–, gai hauek arautzea eta bere irizpideak euskal eremu osorako ematea. Eta halaxe egin du orain arte plazaratu dituen lan, agiri, argitalpen nahiz irizpen batzuen bidez. Ikus dezagun orain arteko bidea.

## 2) Euskaltzaindiak oraintsu arte emandako izendegiak

Euskaltzaindiak 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* plazaratu zuen eta 1986an *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* izeneko liburua. Azken honetan, Eusko Jaurlaritzak argitara emana, biztanleria entitate guztien izen ofiziala eta euskal ordaina eman zen lehenengoz, ez soilik udalena. 1990ean bide beretik abiatuta, Nafarroako Gobernuak erkidego horri zegokion herri izenen bilduma argitaratu zuen, *Nafarroako Herri Izendegia* izenburupean. 1999an *Zuberoako Herri Izendegia* izeneko araua onartu eta *Euskera* agerkarian argitaratu zen, separata eta guzti. 2000. urtean, izen ofizialetan gertaturiko zenbait aldaketa aitzaki, *Nafarroako Toponimia* izeneko argitalpena kaleratu zuen Nafarroako Gobernuak. Era xumeago batean, Foru Erkidegoko herrien izen ofiziala, euskal ordaina eta elebitasunaren erregimena arautu nahi izan zen argitalpen horrekin, besteak beste. Urte berean Zuberoarekin egin bezala, *Lapurdiko Udalen Izendegia* arautu eta *Euskera* agerkarian plazaratu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri izenen berrikusteari ekin zitzaion, EUDEL-ek eskatuta. 1986tik aitzina aldaketa ugari gertatuak ziren izendapen ofizialen eta aldaera zuzenen kontuan, udal batzuen sentiberatasun handiagoagatik eta, bereziki, toponimia ikerketaren alorrean gero eta lan gehiago egiten ari zirelako, datu berri askok iraganean hartutako erabakiak zuzentzea eskatzen zuten eta. Horren ondorioz, 2000.ean *Euskera* agerkarian *E.A.E.ko Biztanle Entitateak* izeneko zerrenda argitaratu zen, apur bat beranduago EUDEL-ek berak liburu batean plazaratuko zuena. 2002 eta 2004 bitartean *Nafarroa Behereko Herri Izendegia* izeneko arauak eskualdeka argitaratu dira *Euskera* agerkarian. Bitartean ere, udalek eskatuta, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak sarri egin behar izan ditu herri izenen gaineko txosten, irizpen eta aholkuak. Lan horietan guztietan agertu dira, neurri batean edo bestean, hemen tratatzen ari garen gai hauek.

### a) Egoera elebidunaren ondorioak: zehar marra

Kontuan izan behar da euskara hizkuntza ofizialtzat hartu aurretik sortutako beharrak bestelakoak zirela. Koldo Mitxelena berak argi utzi zuen Euskaltzaindiak 1979an kaleratu zuen izendegiaren xedea zein zen: herri izenen euskal ordainak ematea, jendeak ehunka kontsulta egiten zizkiolako Euskaltzaindiari eta nor bere kabuz ari zelako euskal ordainak ematen “lehen zeudenen aldamenen edo gainetik”; hortaz, Euskaltzaindiak, presaka bazen ere, herri izendegia kaleratu behar izan zuen:

“Euskaltzaindiak, eta ez Euskaltzaindiak bakarrik, ehundaka izan ditu deiak, honi edo hari euskaraz nola deritzan jakin nahiz. Hor dabilta, besteak beste, horrenbeste lurkarta, mapa edo lurtamu, eskualde eta hirien izenak euskaraz omen dakarzkienak: zorigaitzez, haatik, euskaraz baldin badaude ere, ez datoz beti, ezta alderatzeko ere, itxura berean... Euskara ofizialkidetasun bideetan abiatu baino lehen ere, eta luzaro gabe bide horietan barrena sartua beharko du gure hizkuntzak, jendea hasi da, nor bere kabuz, direlako izenen euskal ordainak leku askotan agerian ipintzen, lehen zeudenen aldamenean edo lehen zeudenen gainetik, beraz, egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari gidaritzza moduko zerbait bere herritarrei eskaintzea, izendapen kontuan guztiok, han eta hemen, bateratsu ibil gaitzen”.

Herri batzuen izenak grafia bera dute euskaraz eta erdaraz. Kasu horietan, kompetentziadun erakundeek ez dute buruhauste handirik kartel, agiri ofizial eta halakoak idaztean. Hala gertatzen da *Altzai* (NB), *Amurrio* (A), *Berango* (B), *Tolosa* (G), *Urdiain* (NG) eta antzerakoetan. Beste kasu batzuetan, zeinu diakritiko huts batzuetan baizik ez dira desberdinak: *Abaigar / Abáigar* (NG), *Ainhoa / Aïnhoa* (L), *Baigorri / Baïgorry* (NB), *Beasain / Beasáin* (G), *Ondarroa / Ondárroa* (B) etab. Kasu hauetan badirudi arazoa gutxitu egiten dela berez, nahiz eta, egoera soziolinguistiko eta soziopolitikoaren arabera, toki bakoitzean tildea erabiltzea ala ez erabakitzen den. Beste kasu batzuetan izen bera eduki arren, hizkuntza bien ezaugarri morfofonetikoen ondorio, desberdintasun grafiko txikiak daude hizkuntza batetik bestera: *Gernika / Guernica* (B), *Zumaia / Zumaya* (G), *Murgia / Murguía* (A), *Lekunberri / Lecumberri* (NG) etab. Kasu hauek konplexuago bihurtuz joaten dira, desberdintasun grafiko horiek, ahoskera desberdinak adierazten dituztenean, orduan beste hizkuntzako idazkera ikastea ez ezik, ahoskaera propioa eta zenbait kasutan hots berri batzuk ere ikasi beharko baititu erabiltzaile elebakarrak: *Leitza / Leiza* (NG), *Urruña / Urrugne* (L), *Zuhatza / Zuaza* (A), *Gerrikaitz / Gerricaiz* (B) etab. Aldaera hauen arteko desberdintasunak bortitzago bihurtuko dira, hizkuntza-sistema bietan izen beraren eboluzio desberdinak ditugunean: *Guardia / La Guardia* (A), *Abadiño / Abadiano* (B), *Lazkao / Lazcano* (G), *Igantzi / Yanci* (NG), *Angelu / Anglet* (L), *Larraine / Larrau* (Z) etab. Azkenik, herri batek izen desberdin bat eduki dezake hizkuntza bakoitzean, bata bestearen itzulpena izan nahiz ez: *Iruri / Trois Villes* (Z), *Donostia / San Sebastián* (G), *Alegría / Dulantzi* (A), *Ugao / Miravalles* (B), *Donapaleu / Saint Palais* (NB) etab. Esan bezala, Euskal Herrian dauden erkidego politiko desberdinen legeriaren arabera eta, halaber, herri bakoitzeko egoera soziolinguistikoaren arabera, erakundeek hizkuntza aberastasun anitz hori kudeatzeko erabaki desberdinak hartu ohi dituzte.

Euskaraz aritzean erdal toponimoen idazkera euskalduntzaileak hedatu ez diren bezala, erdaraz aritzean euskarazko izenen grafia gaztelaniartzaileak ekiditeko joera zabaltzen ari dela dirudi. Hala, euskara ofiziala den erkidegoetan, *Beasáin*, *Guernica*, *Guerricaiz*, *Lecumberri*, *Murguía*, *Ondárroa* eta era honetako grafiek gero eta gutxiago erabiltzen dira, gaztelaniaz ere euskal grafiek nagusitzen ari baitira erakundeen bultzadaz. Era bien arteko aldeak bortitzagoak direnean, egoera soziolinguistiko eta soziopolitikoaren arabera jokatu ohi da, nahiz eta askotan toponimoa ondare den hizkuntzako grafiaz besteko erak ibili eta ofizialdu: *Arkauti / Arcaute* (A), *Burlata / Burlada* (NG), *(Sopela /) Sopelana* (B), *(Ligi /) Licq* (Z), *(Sara /) Sare* (L) etab. Hala ere, kontuan izan

behar da, hizkuntzen artean maila-desberdintasunik onartzen ez badugu bederen, *Añezcar* grafia gaztelaniar-tzailea ontzat ematea, *Kaparroso* grafia euskalduntzailea bezain zilegi (edo ez) dela. Ez dirudi bide hori segitzea komenigarria denik ezein hizkuntzaren osasunerako. Bestelako egoera baten aurrean gaude, izenak nabarmen desberdinak direnean. Normalean biak onartu ohi dira ofizial gisa eta erabiltzaile bakoitzak bere hizkuntzari dagokiona hauta dezake: *Donostia / San Sebastián* (G), *Agurain / Salvatierra* (A), *Areatza / Villaro* (B), *Hiriberri / Villanueva* (NG) etab.

Hala ere, kontuan izan bedi erabilera hau herrien zerrenda, izendegi, kartel eta abarretan agertzeko bide komentzionala dela, Euskal Herriko elebitasun egoeraren erakusgarri eta baliabide erabilgarri. Euskararen erabilera arruntean, ordea, emandako bi izen horietarik, esaldi barruan euskarari dagokion era jasoko dugu bakarrik. Gaztelaniaz eta frantsesez beste horrenbeste egingo dugu, erdal izena erabiliz. Hortaz, euskaraz honako erabilerak dira zuzenak:

*Arkautitik etorri dira gaztagile horiek, Burlatara ezkondu da haren arreba, Sopolako tabernak beti egoten dira beterik, Ligin ikusi genuen maskarada aurten, Sarak oso inguru ederrak ditu, Agurainentzat izan dira azkeneko diru laguntza guztiak, Areatzari ez dio horrek mesederik egingo, Hiriberrirekin batera joango gara festara...*

Batzuetan, hala ere, egoera hauek adierazteko zehar marraz gainera beste ikur batzuk erabili dira. Adibidez, *Nafarroako toponimia* liburuan (2000), egoera desberdinak adierazi nahi omen dira *Doneztebe / Santesteban* eta *Burlada <> Burlata* ikurren erabilerarekin. Gainera izen guztien euskal ordaina ematen den arren, kasu askotan ez da ofiziala (eremu ez-euskaldunean edo mistoan dagoelako). Kasu horretan zer egin behar du eremu euskalduneko erabiltzaileak izen hori idatzi nahi badu?

Bestalde, zenbait administrazio publikok bere kabuz hartutako erabaki batzuk nahasgarri bihurtu dira, hala nola, *Vitoria / Gasteiz* eta *Donostia / San Sebastián* eman beharrean, *Vitoria-Gasteiz*, *Donostia-San Sebastián* idatzita ematea. Gainera, lehenbiziko kasuan, udalbatzaren helburua izan zen, izen hori bere horretan hizkuntza bietan erabil dadin eta, ondorioz, hala egiten da gaur egun agiri ofizial guztietan: *Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko udala*. Gogoratu beharko litzateke *Vitoria-Gasteiz* ez dela zuzena ez gaztelaniaz ez euskaraz.

Bestalde, jakinarazi behar da zehar marra beste esanahi batez erabili duela inoiz Euskaltzaindiak. Jadanik *Euskal Herriko Autonomi Elkarte*ko *Herrien Izenak* argitalpenean (1986), zehar marra agertzen zen ontzat hartutako bi euskal izen zuzen ematen zirenean. Honen adibide, Elgoibarren *San Pedro / Idotorbe* (G) agertzen da euskaraz bietarik edozein zuzen dela adierazteko. Geroztik tradizio horri eutsi dio Euskaltzaindiak onartutako azkeneko izendegietan, hala nola *Zuberoako Herri Izendegian* (1999): *Urdax / Santa Grazi* (Z) eta *Lapurdikoko Udal Izendegian* (2000): *Biarritz / Miarritze* (L) etab.

## **b) Herri elkarteak: marratxoa**

Asko dira Euskal Herriko erkidego politiko guztietan, udalerriak osatzeko tradizioan bereiz egon diren udalak elkartzutakoak. Eta ez bakarrik udalerriak (*Altzai-Altzabeheti-Zunharreta* (Z)). Kasu batzuetan

kontzeju elkartuak (Aiarako *Beotegi-Menagarai* (A)), udalaz gaineko barruti bereziak (*Baiona-Angelu-Biarritz* (L)) etab.

Segituan ikusiko dugunez, marratxoak erabilera eta esanahi ugari izan ditu leku izenekin erabiltzean. Baina badirudi ohikoena, eta hiztun arruntak errazkien ulertzen duena, zenbait herriren elkarketarena dela. Ondorioz, argitalpen guztietan izan dugu elkarte horien berri, marra erabiltzeari esker: *Ainhize-Monjose* (NB) 1979an, *Gernika-Lumo* (B) 1986an, *Arraitz-Orkin* (NG) 1990ean, *Lexantzü-Zunharre* (Z) 1999an, *Gorrontz-Olano* (NG) 2000.ean, *Zeinka-Zearregi* (B) 2000.ean, *Labetze-Bizkai* (NB) 2002an.

Frantsesez erabilera ofizialean marratxoa hitz bat baino gehiagoz osatutako leku izen guztietan erabili ohi da, izendapenaren hitz-batasuna nolabait adierazi nahian. Irizpide hau oinarri, *Lichans-Sunhar* elkarketaren kasuan ez ezik, *Cambo-les-Bains* (L), *Saint-Martin-d'Arrosse* eta honelako izen konposatuetan ere ageri da. Euskaltzaindiak araututako *Santa-Grazi* (Z) euskal izenaren eran, erabilera horren islada dagoela dirudi, euskarazko hagi-toponimoak frantsesezko *Sainte-Engrace* izen ofizial marratxodunaren itxura bera hartzen baitu.

Gorago ikusi dugun bezala, erakunde batzuek marratxoa ofizialdu dute hizkuntza biei dagozkien leku-izenak bereizteko, batzuetan “batasun” banaezina adierazi nahian (*Vitoria-Gasteiz*) eta beste batzuetan aukera egin dadin (*Donostia-San Sebastián*).

Euskaltzaindiaren izendegien tradizioan marratxoa erabili da halaber herri izenkideen kasuan, bereizte aldera argigarri bezala herriaren izenari ibar edo eskualdearena gaineratzen zitzaionean. Gainera tradizio hau oraintsu artekoa izan da: (*Araba-*)*Bastida* (A) 1979an, (*Arrati-*)*Arteaga* eta *Albizuelexaga-San Martin* (B) 1986an, (*Arakil-*)*Uharte* eta *Etxarri-Aranatz* (NG) 1990ean, *Hiriberri(-Arakil)* (NG) 2000.ean...

### c) Herri izenkideak bereizteko bide tradizionala

Euskal Herrian zehar izen berbera duten herri asko aurkitu ahal da. Hiztuna testuinguru geografiko esanguratsu edo murriztu batean dagoenean, ez da arazorik sortzen. Kontrara, zehaztu gabeko eremu geografiko edo Euskal Herri osoaz aritzean, gerta daiteke aski ez izatea *Donibane*, *Getaria* edo *Lekunberri* izenak aipatzea, entzulea zein herriz ari garen ohartzeko.

1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* delakoan, argibide oharretan honako hau esaten zen:

«Euskal Herrian herri bat baino gehiago izen berekoak daudela adierazteko da. Euskaldun batek (*Markin-*)*Etxebarri* esaten du, *Markina* merindadekoa *Uribekoaz* bereizteko, baina bereiztu behar denean bakarrik, herrian bertan *Etxebarri* esango du. Adibideak: (*Leintz-*)*Gatzaga*, (*Lapurdi-*)*Getaria*.»

Irizpide honen arabera herri izen franko agertzen dira egoera berean, eta are gehiago udal ez diren gainerako kontzejuak, herriak, lekuak etab. normalizatuz doazen neurrian:

(*Etxauri-*)*Etxarri*, (*Lapurdi-*)*Jatsu*, (*Garazi-*)*Jatsu*, (*Garazi-*)*Lekunberri*, (*Lizoain-*)*Urrotz*, (*Gipuzkoa-*)*Getaria*, (*Lapurdi-*)*Getaria*, (*Araba-*)*Bastida*, (*Nafarroa Beherea -*) *Bastida* etab.



Baina, aldi berean, 1979ko lan horretan bertan ikusten ahal da zenbait izenetan (gutxi gorabehera hirutik batean) irizpide hori ez zela errespetatu, eta aipatutako modu horretan eman beharreko herri izen batzuk beste honetan ere eman zirela:

*Donibane-Garazi, Uharte-Garazi, Etxarri-Aranatz, Uharte-Arakil...*

Hau da, ez zen kontuan izan, marraren erabilera beste kasu batzuetarako arautu zela, hain zuzen ere, argibide oharretan aipatzen dituen hauetarako, gorago esan bezala:

“Herri bik udal bakarra osatzen dutela adierazten du, biak maiuskulaz daudenean: *Gamiz-Fika, Ezkio-Itsaso, Biurrun-Olkotz, Ürrüstoi-Larrabile*”.

Alderantzizkoak ere aurkitzen dira, hots, izenen ordena aldatuz emandakoak, *Murelu(-Konde)* esaterako, eta, bestalde, ez da falta irizpide horrekin zerikusirik ez duen herri izenen bat (*Arga(-)Miranda*, edota irizpide horren arabera idatzia, beste modu batera adierazi beharrekoa, hala nola, *Olite(-Erriberri)*, zeinetan era biak euskaraz zuzenak direla eman nahi baita aditzera.

1986ko *Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Herrien Izendegian* eta 1990eko *Nafarroako Herri Izendegian*, 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* hartu zen oinarritzat eta ondorioz, ibar edo eskualdeak modu berean eman ziren:

(*Gulibar(-)Aginaga, (Lizoain(-)Aginaga, (Arakil(-)Uharte, (Baztan(-)Uharte, (Arrati(-)Arteaga, (Gautegiz(-)Arteaga*, nahiz eta *Derio-Arteaga* izena ere agertu.

Euskararen ofizialtasunaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko herri izenak udaletako agirietan eta errepideetako karteletan jartzen hasi zirenean, zenbait udal eta kontzejuk Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari kontu hau argitzeko eskatu zioten. Arrazoi osoz planteatzen zuten, agiri ofizialeetan, eta bereziki karteletan, lehendabiziko erreferentziak herriaren izena behar zuela izan, eta ez ibar edo eskualdearena. Horretaz gainera, euskara teknikari eta itzultzaileei testu ofizialak euskaraz eman behar izaten dituztenean eta, bereziki, deklinatuak eman behar dituztenean, arazoak eta zailtasunak sortzen zaizkie.

Jasotako eskarien ondorioz, Onomastika batzordeak egindako ikerketan ikusi ahal izan da Euskal Herrian, ohikoena, lehendabizi herriaren izena eta gero ibar edo eskualdearena ematea zela:

*Donibane Garazi* (euskaraz XV. mendean ageri dena), *Etxarri Aranatz, Uharte Arakil...*

Eta ez alderantzizkoa, salbuespenak salbuespen, adibidez, *Markin Etxebarri*, nahiz eta azken jokabide hau, ustez, egokiagoa izan oikonimoetan.

Hona hemen esandakoa frogatzen duten lekuko batzuk:

Donibane Garazi:

“Et[a] jaquiçu done Johane garacicoec dute[la] gracia...” (1415, F. Idoate, “Una carta del siglo XV en vascuence”, *FLV* 2, 1969, 290. or.).

“Hilabete hunen hamarreen, etzi zortzi, Donibane–Garazin pesta baten egitera doazi Eskual–Herriko ta inguruetakoz framazonak” (J. Hiriart–Urruti, *Mintzaira, Aurpegia: Gizon*, 1971, 171. or.).

“Bihurtzen nitzaie bizi–bizia. Diotet Doniane–Garaziz gozatu nahi duenak ez duela (...)” (J. Etxepare, *Berebilez*, Klasikoak 17, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, 1987, 43. or.).

“Eiharalarre (frantsesez Saint Michel), Doniane Garazitik hiru kilometra urrundua da (...)” (E. Zubiri, *Artikulu Bilduma*, R. M. Pagolak paratu argitalpena, Klasikoak 41, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, 1990, 104. or.).

“Erran eguneko, seiak eta erdietan tank, hantxet zen Piarres, Doniane Garaziko garan” (Barbier, *Supazter sokoan*, Klasikoak 16, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, 1987, 92. or.).

“Oihenartek dio, hamaseigarren mende erditsutan Etchegaray delako batek Donibane Garazin Artzain Gorria agerrera zuela” (Lafitte, *Euskal Literaturaz*, Klasikoak 35, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Jaurlaritza, 1990, 45. or.).

“Don[j]áne Garázi” (P. Salaberrik E. Etxarren uhartearengandik jasotako ahozko era).

#### Uharte Arakil:

“Bere joan–etorri oyetan, Arbizu, Altsasua, Uarte–Arakil, Egilorr, Beasoain, Urrotz, Etxaleku, Ororbia, Ibero, Gaintza, Errea, Ongotz, Nuin, Aristregi; Berastegi, Asteasu, Azkoitia eta batek daki bertze zenbat errietan ibiliko zen” (Andre Lizartza, *Mendiburu’tar Sebastián A’z*, 1926).

“Herrira heldu zelarik, Uharte Arakilen aurkitzen zen gure gizona biziki gaizki eta han, hil aurretik, testamentua baietsi zueneko ondorioa izan zen” (J.B. Aierbe, *Hijos Ilustres de Segura / Herriko Seme Ospetsuak*. Segura, 1978).

“Uarte, Uerte, Uberte, Uartearakil, uartearakildar” (*Nafarroako Herri Izendegia*. Iruñea, 1990. Ahozko lekukotzetarik azkenengo biak, seguraski, Arakil ibarretik eta Iruñetik gertu dagoen beste Uharte hartatik bereizteko).

#### Etxarri Larraun:

“Etxarrilarraungo apeza” (J. M. Satrustegik Sakanan ahoz bildutako testigantza).

Hau guztia ikusirik, esan daiteke euskal jokaera arrunta dela, ahal delarik, herri edo auzunaren izen hutsa ematea. Ordea, testuingurua behar bezain argia ez denean eta nahastea ekar dezakeela ikusten denean, bereizten laguntzeko biderik erabilienean, ondotik eskualdea, ibarra, herrialdea eta kasuren batean handik pasatzen den ibaiaren izena jartzea dela.

Zenbait kasutan era konposatu horren lexikalizazio maila altua da eta, beharrezkoa ez izanik ere, hala erabili ohi da ia beti. Izen hauekin, hain da era konposatu hau normala, non egiten ez denean, toponimoaren era apokopatua dabilela ematen baitu. Honelakoetan, badirudi leku-izena bi hitzez osatuta dagoela arautzea dela egokiena:

*Artatza Foronda (A), Donibane Garazi (NB), Durruma Kanpezu (A), Miranda Arga (NG), Uharte Arakil (NG), Arteaga Derio (B)...*

Salbuespen gisa, zenbait kasutan argigarria aurretik doa: *Leintz Gatzaga (G), Pasai Antxo (G), Pasai Donibane (G), Pasai San Pedro (G), Markin-Etxebarria (B)*, azken honetan marrak konposaketa azpimarratzen duela, *Markina* merindade zaharraren izenaren azken *-a* galdu dela adieraziz.

Kontrara, bigarren osagarria argigarri gisa bakarrik erabiltzen dela adierazi nahi dugunean, parentesi artean emango da eta aukerakoa izango da erabilera, betiere une bakoitzeko zehaztasun beharraren neurria erabiltzailearen esku geratzen delarik:

*Aretxabaleta (Gasteiz) (A), Elexalde (Amoroto) (B), Aginaga (Gulibar) (NG), Jatsu (Lapurdi) (L), Lekunberri (Garazi) (NB)...*

#### **d) Artikulua eta berezko *-a* herri izenetan**

Orain arte gure izendegietan maiz gaineratu dugun *-a* ohar argigarriaz zerbait esatea ere beharrezko deritzogu. Herri askoren izenek berezkoa dute amaierako *-a* bokala, eta kasu horietan ez dugu inolako oharrik egiten, bokalez amaituriko beste edozein izenen moduan deklinatzen direlako. Kasu marka jasoz gero, honelakoak bere horretan emango dira, oso-osorik:

*Ainhua (L), Ostankoa (NB), Aria (NG), Donostia (G), Eskiula (Z), Lemoa (B), Zanbrana (A)...*

Beste kasu batzuetan, ordea, amaierako *-a* hori ez da berezkoa izaten, jatorriz izen horiek daramaten artikulua baizik, eta ondorioz, artikulu arruntari gertatu ohi zaion bezala, ezkuta daiteke deklinabidea eranstea. Kasu hauek dira, hain zuzen ere, *-a* ohar argigarriaz seinlatu ohi ditugunak. Ohar horrekin aditzera eman nahi da herri izenari zein eratan erantsi behar zaion deklinabidea. Argigarri didaktiko hutsa den aldetik, ez dugu izenaren parte bezala ulertu behar eta ondorioz, gure izendegietan, aurkibideetan eta halako dokumentuetan erabilgarri izan daitekeen arren, ez da seinaleztapenetan edo hizkuntza-erabileretan agerrarazi behar. Orain arte argitara emandako izendegi gehienetan eman da datu hau, baina ez beti:

- 1979ko udalen izendegian: *Busturia -a (B), Hondarribia -a (G), Urizaharra -a (A), Ziordia -a (NG)...*
- 1986ko EAEko herrien-izendegian: *Busturia (B), Hondarribia (G), Urizaharra (A)...*
- 1990eko Nafarroako herri izendegian: *Elizagorria, -a; Itzagaondoa, -a; Ziordia, -a...*
- 1999ko Zuberoako herri izendegian: *Basabürüia (-a), Onizepea (-a), Ospitalepea (-a), Pettarra (-a), Sarrikotapea (-a).*

- 2000.eko Nafarroako toponimia liburuan: *Arribiltoa*, (-a); *Bortziriak*, (-ak) (plural horri deklinabidea erans-tean dauden ondorioak bereziak dira, -ak galdu ondoren -eta- artizkia hartu behar baitu); *Otsagabia*, (-a); *Ziordia*, (-a)...

- 2000.eko EAEko biztanle entitateen zerrendan: *Barrundia*, -a; *Mallabia*, -a; *Olaberria*, -a...

Bistan da joera nagusia, izendegietan oharra agerraraztea izan dela. Bai komunikabideek, bai lekua ezagutzen ez duten erabiltzaileek, beharrezko duten datua da, -a hori kengarria den ala ez jakitea, esan bezala, deklinabidean ondorio garrantzitsuak dituelako. Ezin da onartu euskal esatariek, kazetariak, testu liburuek, aldizkariak eta abarrek \**Bizkaiatik*, \**Donostira*, \**Iruñakoa* eta halakoak setati aieratzen aritzea, oso kaltegarria delako hizkuntzaren normalizaziorako, erabilera baldar tradizioz gabeko horiek hedatzen jardutea. Honenbestez, oharra jartzen segitzea dirudi bidezkoena, gainera erabiltzaile, aditu eta profesionalak, dei berezia egiten zaiela, horrek dakartzan ondorioez eta erabilera desberdinez ondo ohartu daitezen eta halaxe joka:

- *Bizkaia*, -a: *Bizkaiari*, *Bizkaian*, *Bizkaiko*, *Bizkaitik*, *Bizkaira*...
- *Donostia*: *Donostiak*, *Donostian*, *Donostiako*, *Donostiatik*, *Donostiara*...
- *Iruñea*, -a: *Iruñeaz*, *Iruñean*, *Iruñeko*, *Iruñetik*, *Iruñera*...

### Honen guztiaren ondorioz, herri izenen hurrenkeraz eta jarri beharreko zeinu grafikoek hau da Euskaltzaindiaren araua:

1) Herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko dira, adibidez, izendegi, zerrenda, seinale eta antzekoetan:

*Agurain / Salvatierra* (A), *Areatza / Villaro* (B), *Baiona / Bayonne* (L), *Barkoxe / Barcus* (Z), *Doneztebe / Santes-teban* (NG), *Donostia / San Sebastián* (G), *Izura / Ostabat* (NB)...

Euskarazko testu jarraituetan, ordea, emandako bi izen horietatik euskarari dagokiona soilik hartuko da, esaterako:

*Aguraindik etorriko gara; Areatzari mesede handia egingo dio enpresa horrek; Baionan erosi dugu etxea; Piarres Topet "Etxahun" koblakaria Barkoxeko semea zen; Donezteberaino heldu ziren ibilgailu zahar horrekin; Donostiara hurbilduko zaitugu; Izurak ez du hazkunderik izan azken urteotan...*

2) Bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan:

*Arratzua-Ubarrundia* (A), *Beintza-Labaien* (NG), *Ezkiio-Itsaso* (G), *Gamiz-Fika* (B), *Labetze-Bizkai* (NB), *Maule-Lextarre* (Z)...

Erabilera arruntean deklinabide-marka azken izenari jarriko zaio:

*Arratzua-Ubarrundian bizi da nire laguna; pagadi horiek Beintza-Labaienak dira; Ezkio-Itsasoko Udalak halaxe erabaki du; Gamiz-Fikak bere batasunari eutsiko dio aurrerantzean ere; Labetze-Bizkairi ondo letorkioke industria hori; Maule-Lextarretik irteten zen tren...*

3) Lekua gehi eskualdea, harana edo ibarra adierazten duten herri izenetan, lehendabizi herriaren izena jarriko da eta gero, tarteko marratorik gabe, ibar edo eskualdearena. Konposaketa kasu hauetan, ordea, bi egoera bereizi behar dira:

3.1. Zenbaitetan herri izena gehi eskualde, haran edo ibarraren erabilera oso hedatua dago. Elkartze hori jadanik lexikaldutzat ematen denez gero, erabilera jasoan biak jarriko dira:

*Donibane Garazi* (NB), *Donibane Lohizune* (L), *Uharte Arakil* (NG), *Etxarri Aranatz* (NG)...

Eta deklinabide atzizkia amaieran doan izenak jasoko du:

*Donibane Garazin*, *Donibane Lohizunera*, *Uharte Arakilen*, *Etxarri Aranazko*...

3.2. Beste askotan, herri izenaren erabilera arruntak ez du ezinbestez eskatzen eskualde, haran edo ibarraren argigarria eta bere horretan utz daiteke, betiere baldin nahasketa sortzeko arriskurik ez badago:

*Bastida* (A eta BN), *Getaria* (G eta L), *Jatsu* (L eta NB), *Lekunberri* (NG eta NB)...

Baina testuingurua behar bezain argia ez denean, herri hori izenkidea den beste batekin nahas litekeelako, herri izenaren ondotik, dagokion ibar edo eskualdearena jarriko da argigarri:

*Bastida Arberoa*, *Getaria Gipuzkoa*, *Jatsu Lapurdi*, *Lekunberri Larraun*... (vs. *Bastida Araba*, *Getaria Lapurdi*, *Jatsu Garazi*, *Lekunberri Garazi*...).

Konposaketa osagarri hau erabiltzea erabakiz gero, deklinabide-marka azken izenari jarriko zaio:

*Bastida Arberoan* nahiz *Bastida Araban*, *Getaria Gipuzkoatik* nahiz *Getaria Lapurditik*, *Jatsu Lapurdira* nahiz *Jatsu Garazira*, *Lekunberri Larraungoa* nahiz *Lekunberri Garazikoa*...

Hala ere, tradiziorik ez dagoen kasuetan, testu jarraituetan egokia da *Gipuzkoako Getariako txakolina* edo *Lapurdiko Jatsu herrian* moduko egiturak erabiltzea.

4) Herri izenetan maiz ageri den amaierako *-a* dela eta, kontuan izan beharrekoa:

4.1. Herri izen askok berezkoa dute amaierako *-a* hori:

*Ainhoa* (L), *Aintzila* (NB), *Arraia* (A), *Donostia* (G), *Garaioa* (NG), *Zierbena* (B), *Zühara* (Z)... Izen horiek bokalez amaitutako beste edozein izenen moduan deklinatuko dira: *Ainhoa*tik, *Aintzilara*, *Arrairantz*, *Donostiako*, *Garaioatik*, *Zierbenaz*, *Züharan*...

4.2. Beste anitz herri izenetan, ordea, amaierako *-a* hori ez da berezkoa, artikulua baizik. Kasu hauek, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren izendegietan *-a* ohar argigarriaz ageri dira, esaterako:


*Abaurrepea (-a) (NG), Azkoitia (-a) (G), Ermua (-a) (B), Ospitalepea (-a) (Z), Zigoitia (-a) (A)...*

Azkeneko *-a* hori artikulua denez gero, erabil bedi:

*Abaurrepean, Azkoitiarekin, Ermuan, Ospitalepearekin, Zigoitian...*, baina *Abaurrepera, Azkoitiko, Ermuko, Ospitalepetik, Zigoitira...* Era berean, izen hauek azken *-a* galtzen dute ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramatenean, adibidez: *Abaurrepe maitea, Azkoiti osoan, gure Ermu hau...*

Euskaltzaindiak Gasteizen 2004ko azaroaren 26an onartua.





# EUSKAL HERRIKO UDALEN IZENDEGIA



IZENAK BILDUMA



*Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.*

Elkarrekiko basoak eta larreak

0 10 20 30 40 50 km

